

GOBERNU BATZARRA

2008. 01. 28

Beh. Beh. Alkatea:

Jokin Azkue Arrastoa

Zinegotziak:

Olatz Peon Ormazabal
Onintza Lasa Arteaga
Yurre Peñagarikano Zubeldia
Andoni Iturzaeta Arbillaga

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Tolosako Udaletxean, bi mila zortziko urtarrilaren 28an, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 08:00etan hasita. Mahai-burua behin behineko alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-7^a Certificación obra: Proyecto de Bidegorri en Tolosa 2^a fase.

3.- Web guneei diru laguntzak 2008.

4.- Korteta nekazalturismoak eskatutako diru laguntza.

5.-EUSTk, Euskal Unibertsitatea, aurkeztutako proposamena.

6.-Tolosako Alde Zaharra Dendak elkarteari diru laguntzak.

7.-1. Seihilabeteko antzerki eta musika egitaraua eta aurrekontua.

8.-Lizardi kultur elkartearen diru laguntza eskaera.

9.-Adjudicación de los trabajos de Auditoría del Ayuntamiento.

1.- Aurreko akta onartzea.

Behin Behineko Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2008ko urtarrilaren 21ean egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- 7ª Certificación obra: Proyecto de Bidegorri en Tolosa 2ª fase.

Vista la factura presentada por UTE Tolosa, correspondiente a la 7ª certificación de las obras de Bidegorri en Tolosa 2ª fase, cuyo importe total, IVA incluido, asciende a la cantidad de 47.295,03€, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía en funciones,

A C U E R D A

PRIMERO.- Aprobar la referida factura, correspondiente a la 7ª certificación de las obras de Bidegorri en Tolosa 2ª fase, presentada por UTE Tolosa, cuyo importe total, IVA incluido, asciende a la cantidad de 47.295,03€.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a Intervención, al departamento de Obras y Servicios y a UTE Tolosa.

3.- Web guneei diru laguntzak 2008.

Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta behin behineko alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Euskarazko web guneei diru laguntzak emateko 2008. urteko oinarriak, ondoren aipatzen direnak, onartzea.

“Euskarazko web guneei diru laguntzak emateko 2008. urteko oinarriak

1.- Helburua:

Oinarri hauen helburua da kultur, kirol, aisialdi, enpresa, merkataritza, ostalaritza eta oro har publiko zabalari interesgarri gerta dakizkiokeen informazioa eta edukiak, euskaraz, informazio teknologien bidez hedatzeko diru laguntzak jasotzeko baldintzak arautzea.

2.- Eremua:

Diru laguntza hauen xedea da arestian aipatutako edozein alorretako, beti ere, publiko zabalari interesgarri gertatzen zaion neurrian, erakunde eskatzaileari gastuak murriztea euskararentzat garrantzitsua den erabilera-esparru honetan leku oparoa izan dezan bertako eta berezko hizkuntzak.

Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte aipaturako esparruetan proiektu edota informazioa sustatu eta aurrera eramaten dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoek, egoitza sozial eta fiskala Tolosan baldin badute.

Elkarte, erakunde edota norbanako eskatzaileen edukietatik abiatuz, web guneak sortu edota erdaraz sortuta daudenak euskaratzeko proiektuak dira diruz lagunduko direnak.

3.- Baldintzak:

- a).- Edukiak oso-osorik euskaraz izango dira gutxienik. Honek ez du eragozten beste hizkuntzetan ere izatea.
- b).- Hizkuntzaren kalitatea eta zuzentasuna ezinbestekoak dira.
- c).- Elikatzea: bisita kopurua, kalitatea zein erabilgarritasuna eta eguneratzea.
- d).- Eduki horien barruan legetan babestutako gairik baldin badago, eskatzaileak eduki horien gaineko baimenaren jabe izan behar du.
- e).- Web gunea egina izatea diru eskaera egiterako eta eskaera orrian helbidea jartzea Udalak ikuskatu ahal izateko.

4.- Baztertzeak:

- a).- Web gune pertsonalak.
- b).- Edozein eratako edo mailatako irakaskuntza erakundeei lotutako guneak.
- c).- Edozein herri erakunderi lotutako enpresa, talde, elkarte eta abarretako guneak.
- d).- Eduki iraingarria edota pertsonen eskubideen aurkakoa dutenak.
- e).-Edukietara sartzeko edonolako mugakizuna jartzen dutenak edo zerbitzuaren trukeanordainketa eskatzen dutenak.
- f).- Diru laguntzak duen helbururako lehendik diru laguntza jaso dutenak.

5.- Eskaerak aurkeztea.

Eskaera inprimakia, egoki beteta, Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Departamentura helarazi behar da.

Agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

- Gastuen jatorrizko ziurtagiriak edo horien fotokopia konpultsatuak.
- Diruz lagundutako jardueraren oroitidazkia.
- Diru-kontuen balantzea.

Eskaerak aurkezteko epea 2008ko apirilaren 30ean amaituko da.

6.- Balorazioa eta diru laguntza ematea:

Diru laguntza emateko eta zenbatekoa erabakitzeke, alderdi hauek baloratuko dira:

- a).- Gunearen edukiak etengabe eguneratzeko jarriko diren bitartekoak.

- b).- Forma eta diseinu aldetik landua izatea, argia eta erabilerraza.
- c).- Maila eta era desberdinetako ezintasunak dituztenentzat aproposa izatea.
- d).- Software askea erabiltzea.

7.- Balorazio Batzordea:

- a).- Tolosako Udaleko informatika zerbitzuko teknikaria.
- b).- Tolosako Udaleko IKHA zerbitzuko teknikaria.
- c).- Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeko kideak.

Balorazio Batzordeak kanpoko adituen iritzia eskatu ahal izango du.

Balorazio batzordeak, ezarritako irizpideak aintzat hartuta, ebazpen-proposamena egingo dio Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrari, hark behin betiko erabakia har dezan.

8.- Diru laguntzen zenbatekoa:

Oraingoan, 2.000 €ko diru laguntza banatuko da. Eskatzaile bakoitzari, gehienera ere, web gunea euskaraz egiteak izan duen kostuaren % 50 emango zaio, 500 euroko muga gainditu gabe.

Bestalde, emandako diru laguntzak, eskura ditzakeen beste diru laguntzekin batera, ezingo du egindako inbertsioaren kopurua gainditu. Horretarako, beste laguntzarik jaso edo jaso ez izanaren aitorpena aurkeztu beharko du.

9.- Diru laguntzen ordainketa:

Eskaera aurkeztu eta baldintzak betetzen dituenari bi hilabeteko epean helaraziko zaio Gobernu Batzarrak ontzat jotako diru laguntza.

10.- Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea.

Bi hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Epe hori amaitu eta ebazpenik eman ez bada, eskatutakoa ukatu egin dela ulertuko da.

BIGARREN.- 2000 euro onartzea diru laguntza gisa.

HIRUGARREN.- Onartutako oinarriak Gipuzkoa Aldizkari Ofizialean, Ediktu Taulan eta Web orrian argitaratzea.

4.- Korteta nekazalturismoak eskatutako diru laguntza.

Korteta nekazalturismoak euskarazko errotulua jartzeagatik dagokion diru laguntza eskatu du.

Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta behin behineko behineko alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- 450 euroko diru laguntza ematea errotulua euskaraz jartzeagatik.

BIGARREN.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Euskara eta Hezkuntza departamentuari eta interesatuari.

5.- EUSTk, Euskal Unibertsitateak, aurkeztutako proposamena.

Euskal Unibertsitatearen sustapen Taldeko (EUST) ordezkariak Euskal Unibertsitatea Tolosako Udalerrian kokatzeko asmoa plazaratu du. Horretarako, besteak beste, EUSTren bultzatzaile eta partaidea den UEUK prestatutako "Euskal Unibertsitatea, I. Aurreproiektua" izeneko txostena aurkeztu da Tolosako Alkatetzan, egitasmo hau adosten eta bermatzen duten beste hainbat agiri eta txostenekin batera.

Hori dela eta, Tolosan 8.000 metro karratu hartuko litzuzken eremua beharrezko litzateka lehen Campusa ezartzeko. Guzti hori aztertu ondoren, Gobernu batzarrrak, aho batez eta behin behineko alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA: EUSTi adieraztea, Udala prest dagoela bere proposamena aztertzeko eta aztergai duela 8.000 metro karratuko inguruko eremu bat eta plangintzan aurreikusteko prest dagoela.

BIGARRENA: Proiektua bideragarria izateko ezinbestekoa dela eskumena duten beste Herri administrazioek bere adostasuna eta laguntza adieraztea, horren baitan Tolosako Udalak neurriak hartuko baititu lehen erabakian adierazitakoa gauzatzeko.

HIRUGARRENA: Erabakiaren berri ematea EUSTi eta Hirigintza Departamentuari.

6.- Tolosako Alde Zaharra dendak Elkarteari diru laguntzak.

2007ko martxoaren 23an, Alde Zaharreko Batzorde Mistoak hartutako akordioaren bidez, "Alde Zaharra Dendak" Elkarteari 2007. urteko gastuak finantzatzeko, 1.500,00 euroko diru laguntza ematea erabaki zen, beti ere gastu kopuru hau aurrez justifikatzen bada.

Alde Zaharra Dendak Elkarteak 2007ko gastu orokorraren ordain frogagarriak aurkeztu ditu, kopurua 1.638,95 eurokoa delarik.

Beraz, aipatutako kontua izanik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Alde Zaharra dendak Elkarteari 1.500 euroko diru laguntza ematea, 2007. urteko aurrekonturen kargura.

BIGARREN.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza departamentuari eta Alde Zaharreko batzorde Elkarteari.

.....

2007ko martxoaren 23an, Alde Zaharreko Batzorde Mistoak hartutako akordioaren bidez, "Alde Zaharra Dendak" Elkarteari, 2007. urtean ekintzak antolatzeko, % 50eko diru laguntza ematea erabaki zen, laguntza gehienez 12.000 eurokoa izango zelarik.

1336/2007 zenbakidun Alkatearen Dekretuaren bidez, San Joan kanpaina egiteagatik 3.105,75 euroko diru laguntza eman zaio "Alde Zaharra Dendak" Elkarteari eta, beraz, gelditzen den diru laguntza 8.892,25 eurokoa da.

Gabonetako kanpaina gauzatzeko, Alde Zaharra Dendak Elkarteak gastu hauek justifikatu ditu:

ETCANDO S.L.U.	10.233,53
SARIAK ETA OPARIAK.....	7.456,00
GUZTIRA.....	17.689,53

Beraz, diru laguntza (17.689,53 % 50) 8.844,76 eurokoa da, eta aurrez emandako diru laguntzarekin bat eginda, ez du gehienezko 12.000 euroko diru laguntza gainditzen.

Aipatutakoa kontuan izanda, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Alde Zaharra Dendak Elkarteak aurkeztutako gastu zerrenda, 17.689,53 eurokoa, onartzea.

BIGARREN.- Tolosako Alde Zaharra Dendak Elkarteari 8.844,76 euroko diru laguntza ematea, 2007ko aurrekontuaren gain.

HIRUGARREN.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailtzari eta Alde Zaharra Dendak Elkarteari.

7.- 1. Seihilabeteko antzerki eta musika egitaraua eta aurrekontua.

Gaia erabaki gabe geratu da, hurrengo batzorderarte.

8.- Lizardi kultur elkartearen diru laguntza eskaera.

Lizardi Kultur Elkarteak Nabarralde-rekin elkarlanean 8 hitzaldiko historia zikloa Kultur Etxean antolatzeke asmoa adierazi du, eta diru laguntza eskatu dio Udalari. Diru sarreren artean, firma komertzial baten laguntza eta hitzaldietarako bonoen salmentatik lortuko dutena azaldu dute. Kultur Batzordeak ikusita zer gastu eta diru sarrera izango dituzten, diktaminatu du 1.500 euroko diru laguntza ematea.

Kultur batzordearen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Lizardi Kultur Elkarteari 1.500 €ko diru laguntza ematea.

BIGARREN.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kultura Departamentuari eta Lizardi Kultur Elkarteari.

9.- Adjudicación de los trabajos de Auditoría del Ayuntamiento.

Vista la propuesta emitida por la Mesa de Contratación en el procedimiento llevado a cabo para contratar los trabajos de auditoría externa de los estados de cuentas de este Ayuntamiento y de sus organismos y empresas.

De conformidad con los informes emitidos al respecto así como con la propuesta citada, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

A C U E R D A

PRIMERO.- Declarar la validez del acto de licitación celebrado y, en consecuencia, adjudicar a Z&Bauditores, Consultores de Entidades Públicas, S.L., los trabajos de auditoría externa de los estados de cuentas del Ayuntamiento de Tolosa, Residencia Yurreamendi y de las Sociedades Públicas Erretengibel, Tolargi y Tolosa Lantzen, de los ejercicios 2007-2008.

SEGUNDO.- Establecer como plazo de adjudicación el previsto para la realización de las auditorías de los ejercicios 2007-2008. No obstante, podrá prorrogarse para la realización de las auditorías del 2009 y 2010.

TERCERO.- Fijar como precio del contrato el importe de 23.000 euros, para el primer ejercicio auditado.

CUARTO.- Devolver la garantía provisional a los licitadores.

QUINTO.- Suscribir el correspondiente contrato administrativo, fijándose hora y día para ello.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jotzen da, goizeko 10:00etan.

Beh. Beh. ALKATEA

IDAZKARIA